

ANDOAIN DANTZAZ BLAI



Euskal Herrian, bereziki Andoainen aurkitu ditzazkegun Dantza mota ezberdinak eta zer nolako aukera zabalak topatu ditzazkegun.

Egileak: Maddi Gomez, Leire Fiallos eta Alaia Aguado

Dantza gorputz mugimendu zehatz eta kateatuen segida bat da, batez ere, doinu baten arabera egiten dena. Mota askotako dantzak daude mundu guztian; batxata, urbanoa, kontemporaneo, funky, euskal dantzak, tangoa, salsa, polka, vals, swing, mambo, charleston, zumba, flamenko, ballet, hip-hop, rumba, hau da, zure pasioa dantza bada mota asko dituzu aukeratzeko gehien gustuko duzuna egiteko.

ANDOINGO DANTZA MOTAK:

Askotan pentsatzen dugu gustuko ditugun dantza motak ezingo ditugula gure ingurunean aurkitu. Izan ere, bizi zaren herrialdean ez dira dantza mota horiek agertzen edo agertzen diren horiek ez dituzulako gustuko. Gure kausan, Euskal Herrian bizi garenez, pertsona askok buruan dute Euskal Dantza jarraitu beharra dagoela. Baina Andoainen, mota bat baino gehiagoko dantzak aurkitu ditzazkegu.



• EUSKAL DANTZA (URKI)

Euskal Herriko dantzak dira, Euskal kulturaren eta folklorearen osagai garrantzitsuak. Herri, eskualde edo lurralde batetik bestera dantzak aldatu egiten dira, baita esanahia eta dantza egiteko modua ere (jantziak, partaideak...). Dantza batzuk oso zaharrak dira, Euskal Herrian duela mende asko sustraituak, baina badira antzinako dantzen bertsio berrituak ere.

• DANTZA "MODERNOA" (KLAAP)

Dantza modernoa, gorputz adierazpen artistikoa da, dantzarien interpretazioan eta koreografoen ikuspegiaren oinarritzen dena. Mugimenduen jendeari transmititu nahi zaizkion sentimendu eta emozioak erakusten dituzte, interpretazio librearen bidez.

→ **HIPHOPA:** Nagusiki hip hop musikarekin edo haien kulturaren parte gisa eboluzionatu duten hiri-dantza estiloak.

→ **URBANO:** Musika urbanoa inprobisazioarekin eta sormen indibidualarekin duen lotura da, hiri-dantza teknikatik urrunago doa, kaleko kulturaren, auto-adierazpenaren eta mugimenduaren bitartez elementuak barneratuz.

→ **FUNKY:** Funky musikarekin dantzatzea esperientzia dibertigarri eta energetikoa izan daiteke. Musika-genero honek soul, jazz eta R&B elementuak konbinatzen ditu. Egiten diren mugimenduak oso konplikatuak dira, gorputz osoa oso inplikaturik baitago. Gainera, mugimenduen oso erritmo azkarra jarraitzen dutenez, koordinazio ona edukitzea ezinbestekoa da.



• BIKOTETAKO DANTZA (BAKARTXO)

Bikote-dantzen multzoa, mundu osoan sozialki eta lehiakortasunez gozatzen diren bi pertsonen arteko dantzak dira. Ikuskizun eta entretenimendu alderdiengatik, areto-dantzak ere asko gozatzen dira eszenatokian, zineman eta telebistan.

→ **TANGO:** Tangoa musika eta dantza mota bat da, Rio de la platan sortu eta garatua, Buenos Aires eta Montevideo hirietan bereziki. Tangoaren gai nagusia maitasun mina da. 1880-ko hamarkadan sortutako dantza da. Argentinaren gazteek Europara eraman zuten tangoa. Beste hainbat lekutan onartezina zena gustura hartu zuten XX. mende hasierako Pariseko saloi irekietan, Montparnasseko Ba Bulierren edo Pierre-Auguste Renoirrek margotutako Moulin de la Galletten

→ **SALSA:** Salsa Kuban jatorria duen eta Karibeko beste musika estiloetako eragina duen musika eta dantza estiloa da. 1960. hamarkadan sortutako dantza estiloa da eta sorlekua New Yorken du.

→ **MERENGUE:** Merengue XIX. mendearen amaieran Dominikar Errepublikan sortutako musika genero dantzagarria da. Europaren zati batean ere oso ezaguna da, Espainian adibidez, beste latitude batzuen artean



JANZKERA MOTAK

URKI

Euskal dantzak dantzatzeko janzkera mota bat dago, baserritarrez janzten dira eta plazak pozez betetzen dituzte. Baserritar jantziak ilean zapi bat darama, goiko zatian alkandora bat ematen du, tokila batekin pintza batekin helduz. Beheko zatian aldiz gona luze bat eramaten dute estanpatu ezberdinekin, batzuk marretakoak izan daitezke, loreekin, puntitoekin... Horretaz gain, gonaren gainean mantala bat eramaten dute eta oinetako bezala espartinak edo abarkak daramate..



Mutilek aldiz, beste modu batera janzten dira, beraien trajea dena zuria da alkandora eta galtza zuri batzuekin eta beraiek zapiak gain boina gorri bat daramate, eta gerrian bufanda gorri bat ematen dute lotuta. Oinetako bezala neskak bezala espartinak edo abarkak daramate.



KLAAP

Klaapen aldiz dantza mota asko egiten dira, beraz janzkera desberdin asko daude. Adibidez, kontenporaneo estiloan ohikoena soineko eta gonak eramatea da, Hip-hop estiloan berriz, ohikoena gorra bat sudadera bat eta galtza zabal batzuk eramaten dira.

BAKARTXO

Bakartxo dantza eskolan, baita ere, dantza estilo asko daude adibidez, tangoan mutilek beti jaka eta soineko prakak daramate, horretaz gain, gorbata edo lazodun alkandora aukera dezakete. Gainera, galtzak eusteko tiranteak erabiltzen dituzte. Nesken kasuan aldiz, soineko mota asko daramate, batzuetan flekoak daramate eta beste batzuetan ez, normalena soinekoa beltz edo gorri kolorekoak izaten dira.



“TXIKITATIK GUSTATU IZAN ZAIZKIT EUSKAL DANTZAK”

Urte asko darama dantza egiten eta oso ondo sentitzen da egiten duen bakoitzean.

NOLA SENTITZEN ZARA DANTZATZEN DUZUN BAKOITZEAN?

Ondo sentitzen naiz dantzatzeko dudako bakoitzean, dantzatzeko dudako bakoitzean egin beharreko gauzak ahaztea lortzen ditudalako.

NONDIK DATOR ZUK DANTZAREN MUNDUAN SARTU IZANA?

Txikitatik gustatu izan zaizkit euskal dantzak, lehen nire ahizparen ekitaldiak ikustera joaten nintzen eta pixkanaka pixkanaka ni ere mundu horretan murgildu ninduten.

ZER DUZU GUSTUKO DANTZA EGITEAZ?

Dantzatzeko dudako bakoitzean egin beharreko gauzak ahaztea lortzen dudala.

ZER EKITALDI MOTA EGITEN DITUZUE ANDOAINEN ?

Ekitaldi mota desberdinak egiten ditugu, adibidez Santakruz jaietan dantza desberdinak egiten ditugu eta baita ere Basteron hainbat ekitaldi egiten ditugu.

NOLA IRITSI ZINAN DANTZA MOTA HORI GUSTUKO DUZULA JAKITEA ?

Txikitan nire ahizpa ikustera joatera behartzen zidaten eta azkenean derrigorrezko jardunaldi hori gustuko nuen jardunaldi batean bihurtu zen bat batean.

ZER DANTZA MOTA EGITEN DITUZUE URKIN ?

Denetariko euskal dantzak egiten dira, Gipuzkoako dantzak, Bizkaiako dantzak...

“DANTZAK, GAUZA TXARRAK AHAZTEAK EGITEN NAU”

15 urte daramatz dantzan eta bere sentimenduak adieraztea laguntzen dion zerbait dela esaten digu.

NOLA SENTITZEN ZARA DANTZATZEN DUZUN BAKOITZEAN?

Dantzatzen dudan bakoitzean alai sentitzen naiz, gustuko dudan kirol bat denez oso gustura eta alai joaten ohi naiz. Dantzak, gauza txarrak ahazteak egiten nau eta beste edozertaz deskonektatzeaz ere, momentuaz eta dantzaz disfrutatzen dudan bitartean.

NONDIK DATOR ZUK DANTZAREN MUNDUAN SARTU IZANA?

Txiki txikitatik dantza telesailak, bideoak... ikusi izan ditut, adibidez, "fama a bailar, goazen..." bakoitzean imitatzeke gogokoan sartzen zitzaizkidan eta beraiek bezain ondo dantza egin nahi nuen. Gainera, nire amari ere dantza asko gustatzen zaio, berak beti animatu nau dantza egitera.

TXIKITATIK GUSTUKO IZAN DUZUN ZERBAIT IZAN AHAL DA ?

Bai, txiki txikitatik oso gustuko izan dut. Oso gazte hasi nintzen dantza egiten.

ZER DUZU GUSTUKO DANTZA EGITEAZ?

Dantza egiteaz gauza asko gustatzen zaizkit, beti daude gauza berriak ikasteko, pausu berriak, mugimendu berriak... Baita ere, gorputzarekin hitzegin gabe gauza ezberdin asko transmititu daitezkeela, gainera, lagun berriak eta talde lana ere egiten dira. Bestalde, gauza gustukoena irakasle ezberdinez ikastea da, masterclassak, aukera horiek izatea oso politak eta baliogarriak dira, irakasle ospetsuez ikastea oso esperientzia polita da. Klapp dantza eskolak aukera horiek ematen dizkigu urtean pare bat alditan.

NOLA IRITSI ZINAN DANTZA MOTA HORI GUSTUKO DUZULA JAKITEA ?

Dantza motak deskubritzeko eta jakiteko zein gustuko duzun, probatzen joan behar da, dantza estiloak oso ezberdinak direlako beraien artean. Nire kasuan probatzen joan naiz dantza estilo ezberdinak, adibidez, funkya, komertziala, urbanoa, hip-hop-a, garaikidea....

ZER DANTZA MOTA EGITEN DITUZUE KLAAPEN ?

Gaur egun dantza modernoa, urbanoa, hip hop-a, funky-a, jazz-a, dantza garaikidea, balleta, musikala... egiten dira, aukera mordoa dago aukeratzeko.

ZER EKITALDI MOTA EGITEN DITUZUE ANDOAINEN ?

Andoainen urtero urte bukaerako jaialdia egiten dugu, Bastero kulturgunean, aurten ekainak 1, larunbatean izango dena. Bertan, urte osoan zehar landutako koreografiak erakusten ditugu, ikasleontzat urteko momentua deseatuena izaten da, denok urduri egoten garenak baina denok irribarre batekin bukatzen duguna, bestalde, Andoain zehar beste ekitaldiak ere egiten ditugu, horiek, urtearen arabera eta ekintzen arabera izaten dira. Adibidez, euskaraldian parte hartu genuen, San Juan festetan... Andoainetik kanpo ere ekitaldiak egin ditugu, adibidez, dantza kalean, Gipuzkoako dantzen erakustaldietan, Zizurkilen....

Azkenik, ikusi dezakeguna da Euskal Herrian, naiz Andoainen dantza mota ezberdin asko aurkitu ditzakegula. Zure estiloa edo gustuko dituzun gauzak aurkitu ahal izateko. Ziur gaude, gustuko duzun baten bat aurkituko duzula. Eta bestela beste aukera handiak aurkituko dituzu zure herritik gertu.

